

Aditz laguntzailea : denbora

Gogoratu: aditzak esaldi batean ekintza , egoera edo izatea adierazten du eta esaten digu ekintza hori noiz burutu den: iragana, orainaldia edo geroaldian. Adibidez:

- | | |
|--------------------------------------|--------------------------------------|
| • Ni ibili nintzen (atzo). | • Guk ikusi genuen (atzo). |
| • Ni ibili naiz (duela gutxi). | • Guk ikusi dugu (duela gutxi). |
| • Ni ibiltzen naiz (orain, egunero). | • Guk ikusten dugu (orain, egunero). |
| • Ni ibiliko naiz (bihar). | • Guk ikusiko dugu (bihar). |

1. Adierazi azpimarratutako aditzek orainaldia, lehenaldia edo geroa adierazten duten.

Kaixo, Jokin:

Zelan zaude. Atzo hirian bizikleta berria erosi genuen. Nire osabak oparitu zidan hashoa ere ekarri genuen. Gaur gosaldi eta gero, bizikleta prestatu dugu eta ondoko herriraino joan gara.

Bihar goizean, eguraldi bikaina egingo du, hala iragarri dute behintzat, eta igandea denez, giro aparta izango dugu bidagorritik ibiltzeko. Kosta aldera joango gara.

Idazten dizut zuk gero ez esateko "ez didazu esaten noiz zoazen bizikletan", animatu, bestela, kontatuko dizut astelehenean.

Asier

- | | |
|-------------------|---------------------|
| • erosi genuen : | • izango dugu: |
| • oparitu zidan : | • joango gara: |
| • ekarri genuen: | • idazten dizut: |
| • egingo du: | • ez didazu esaten: |
| • iragarri dute: | • kontatuko dizut: |

2. Aukeratu erantzun zuzena kasu bakoitzean.

- Atzo gauean nik batere lorik egin.
- Etzi gu gereziak hartzera.
- Biharamunean haiek txango batera.
- Orain zu izozki bat.

3. Idatzi aditz hauen forma puntukariak.

Zuk atzo bizkar-zorroa eraman

Zuek atzo saria irabazi

Guk gaur ondo pasatu

Zu atzo joan

Haiek gaur egunkaria ekarri

Hark gaur txirula jo

Haiek partida gaur galdu

Nik atzo ogia erosi

Gu atzo etorri

Haiek gaur irratia entzun

4. Idatzi esaldi hauek iraganean:

- a. Otso bat ageri da basoan.
- b. Ardiak beldur dira.
- c. Artzainak ardien beekak entzuten ditu.
- d. Otsoa gose da.
- e. Artzaina oihuka hasi da.
- f. Zertan dabil Zuri?, artzainaren txakurra.
- g. Txakurrek ardiak zaintzen dituzte.
- h. Bat batean, Zuri eta bere lagunak agertu dira.
- i. Otsoa ihesi joan da.
- j. Artzainak Zuri zoriondu du.

